



**2022-2023**

# **HEZKUNTZA PROGRAMAK ZARAUZKO UDALA**



*ZARAUZKO UDALA*

**HEZKUNTZA, PAREKIDETASUNA, EUSKARA ZERBITZUA, GAZTERIA , IMMIGRAZIOA,  
KULTURA, PREBENTZIOA, INGURUMENA, AGENDA 21, UDALTZAINGOA, KIROLA, BIDE-  
HEZIKETA**



# Aurkibidea

- . HEZKUNTZA-PROGRAMAK

- . ZERBITZUAK

## EUSKARA DEPARTAMENTUA

<b>PROGRAMA</b>	<b>SOZIOLINGUISTIKA TAILERRAK DBH4ko IKASLEENTZAT 2022-2023</b>
<b>GAIA</b>	<b>Soziolinguistika</b>
<b>HELBURUAK eta EDUKIA</b>	<p>Gazte askok euskararen gaia ez dute euren lehentasun eta beharren artean kokatzen, beraz, gaiaren inguruan hausnarketarik ez dute egiten. Egitasmo honen bidez hausnarketa hori egitera gonbidatu nahi ditugu. DBHko 400 ikaslek hartzen dute parte saio hauetan. Saio praktikoak dira, ikasleen jarrera eta portaeratan eragiteko.</p> <p>Egitasmoaren helburuak:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Euskaraz modu erosoan bizitzeko baliabideak ematea.</li> <li>• Hizkuntzen elkarbizitzarako gakoak ematea.</li> <li>• Euskararen aldeko jarreretan eragitea.</li> <li>• Jarrera eta portaeren arteko koherentzia bilatzea.</li> <li>• Norberaren jokaerak duen garrantziaz jabetzea.</li> <li>• EUSKARALDirako prestatzea.</li> </ul>
<b>HARTZAILEAK</b>	<b>DBH 4</b>
<b>METODOLOGIA</b>	Gazte taldeekin hausnarketa, ariketa edo lan praktikoaren bidez gauzatuko da: parte hartzailea eta partekatua izango da.
<b>BALDINTZAK</b>	<p>Ikastetxeek irakasle arduradun bana izendatuko dute. Ikasleek soziolinguistikari buruzko kontzeptuak barneratuta izan beharko dituzte. Egitekoak aurrez adostuko dira (irakasle eta saioen dinamizatzaileenak) Saioak aurretik antolatuko dira. Jarraipena egingo da (ikastetxeak, Berritzegunea, Udala eta EMUN)</p> <p>Datozen ikasturteetan egitasmoa zabaltzeko <b>lantaldean</b> parte hartzea eskatuko zaie ikastetxeei.</p>
<b>BEHARRAK</b>	Ikus-entzunezkoak erabiltzeko tresnak Ikasgela ez den beste gune bat
<b>IRAUPENA</b>	Gutxienez bi saio eta gehienez lau Ikastetxe bakoitzarekin adostuko da.
<b>ERAKUNDEA edo ENPRESA</b> Web orria	<a href="http://www.emun.eus">EMUN hizkuntza zerbitzuak</a> <a href="http://www.emun.eus">www.emun.eus</a>

<b>UDAL DEPARTAMENTU SUSTATZAILEA</b>	EUSKARA DEPARTAMENTUA
<b>Telefonoa</b>	943 00 51 16
<b>Helbide elektronikoa</b>	<a href="mailto:euskaraz@zarautz.eus">euskaraz@zarautz.eus</a>
<b>Arduraduna</b>	Maite Etxaniz

## EUSKARA DEPARTAMENTUA

<b>PROGRAMA</b>	<b>ARNASGUNEEN BURUZKO FORMAKUNTZA SAIOAK 2022-2023</b>
<b>GAIA</b>	<b>ARNASGUNEAK</b>
<b>HELBURUAK</b>	<ul style="list-style-type: none"><li>• Euskararen arnaguneen ideia, beraien garrantzia eta arnaguneetako herritarren lidergotza kokatzea normalizazio prozesuan.</li><li>• Hizkuntza Ekologiaren diskurtsoa zabaltzea.</li><li>• EUSKARALDIaren rolak</li></ul>
<b>EDUKIAK</b>	<ul style="list-style-type: none"><li>• Hizkuntza aniztasuna eta hizkuntza berdintasuna.</li><li>• Hizkuntzaren eta ekologiaren artean dauden antzekotasunak landu.</li><li>• Arnaguneen kontzeptua eta garrantzia landu, bai ildo geografikoan bai soziofuntzionalen.</li><li>• Ikasleek euren hizkuntza praktikei buruz hausnartzea.</li><li>• Hizkuntzaren ofizialtasuna eta berezkotasuna bereizten ikastea.</li><li>• Ikasle bakoitzak bere hizkuntzen mapa egitea.</li></ul>
<b>HARTZAILEAK</b>	<b>BATXILERGOKO 1. MAILAKO IKASLEAK</b>
<b>IRAUPENA</b>	<ul style="list-style-type: none"><li>• Hiru ordu guztira, ordu eta erdiko 2 saiotan banatuta.</li></ul>
<b>BALDINTZAK</b>	<ul style="list-style-type: none"><li>• Ikastetxeek irakasle arduradun bana izendatuko dute.</li><li>• Ikasleek soziolinguistikari buruzko kontzeptuak barneratuta izan beharko dituzte.</li><li>• Egitekoak aurrez adostuko dira (irakasle eta saioen dinamizatzailenak)</li><li>• Saioak aurretik antolatuko dira.</li><li>• Jarraipena egingo da (ikastetxeak, Udala eta UEMA)</li></ul>
<b>BEHARRAK</b>	<ul style="list-style-type: none"><li>• Ikus-entzunezkoak erabiltzeko tresnak</li></ul>
<b>Telefonoa</b>	943 00 51 16
<b>Helbide elektronikoa</b>	<a href="mailto:euskaraz@zarautz.eus">euskaraz@zarautz.eus</a>
<b>Arduraduna</b>	Maite Etxaniz

## EUSKARA DEPARTAMENTUA

<b>PROGRAMA</b>	<b>EUSKARA INDARTZEKO IKASTAROAK 2022-2023</b>
<b>GAIA</b>	<b>EUSKARA</b>
<ul style="list-style-type: none"> <li>• <b>HELBURUAK eta EDUKIA</b></li> </ul>	<p>Kanpotik etorritako ikasleei euskararen ezagutzan aurrera egiten laguntzeko eskolak eskaintzea da helburu nagusia.</p> <p>Haur hauen euskara maila indartzea: bai entzumeneko eta irakurmeneko ulermen aldetik, baita mintzamina eta idazmenaren aldetik ere.</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>✓ DBHko ikasleak euskarara gerturatu eta beraien jarrera hobetzea</li> <li>✓ LHko hurrekin euskararen oinarriak lantzea.</li> </ul>
<b>HARTZAILEAK</b>	<b>LH eta DBH</b>
<ul style="list-style-type: none"> <li>• <b>METODOLOGIA</b></li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>✓ LHko ikasleen saioak AEK euskaltegiaren bidez antolatuko dira. Astean bi saio ikastetxean bertan.</li> <li>✓ DBHko ikasleen saioak Udal Euskaltegiaren bidez, astean 2 saio Udal Euskaltegian.</li> <li>✓ Premien arabera antolatuko dira taldeak.</li> <li>✓ Ikastetxeetako orientatzaileen parte hartzea eta inplikazioa oso garrantzitsua izango da.</li> </ul>
<b>BALDINTZAK</b>	Jarraipen bilerak egingo dira.
<b>BEHARRAK</b>	Gela egokia prestatzea eta beharrezko materiala eskura izatea.
<b>IRAUPENA</b>	Ikasturtea.
<b>OHARRAK</b>	Orientatzaileekin eta tutoreekin harremana izatea beharrezkoa izango da.
<b>ERAKUNDEA edo ENPRESA</b> <b>Web orria</b>	<a href="http://www.aek.eus">AEK euskaltegia : www.aek.eus</a> <a href="http://www.zarautz.eus">Udal Euskaltegia: www.zarautz.eus</a>

<b>UDAL DEPARTAMENTU SUSTATZAILEA</b>	EUSKARA DEPARTAMENTUA
<b>Telefonoa</b>	943 00 51 16
<b>Helbide elektronikoa</b>	<a href="mailto:euskaraz@zarautz.eus">euskaraz@zarautz.eus</a>
<b>Arduraduna</b>	Maite Etxaniz

## EUSKARA DEPARTAMENTUA

<b>PROGRAMA</b>	<b>GU ERE BERTSOTAN 2022-2023</b>
<b>GAIA</b>	<b>Bertsolaritza</b>
<b>HELBURUAK eta EDUKIA</b>	<p>Bertsolaritzaren bidez ahozko komunikazioa lantzea da proiektu honen helburua; hau da, bertsogintza bitarteko delarik, ikasleen euskararen erabilera eta kalitatea handitzea.</p> <p>Bertsotarako zaletasuna pizteaz gain, haurren eta gazteen artean euskarari prestigioa emateko eta gehiago erabiltzeko motibazio pizgarria ere izango da.</p> <p>Gainera, bertsogintzak beste zenbait ekarpen interesgarri ere ekar dakizkioke eskolari: ahozko adierazpidea hobetzea, komunikazio estrategia eraginkorrak baliaraztea, hizkuntzaren aldetik sormena bultzatzea, jendaurrean egoteko eta hitz egiteko oztopoak gainditzea, ideiak ordenatzen laguntzea eta komunikatzaile onak heztea.</p> <p>Landuko diren gaiak:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>✓ Bertsogintzaren historia eta ezaugarri orokorrak</li> <li>✓ Bertsoaren funtzio komunikatzailea</li> <li>✓ Irudimena eta sormena</li> <li>✓ Bertsoak egiteko teknikak</li> <li>✓ Ideien antolaketa</li> <li>✓ Memorizazioa</li> <li>✓ Kantaera eta gorputz espresioa</li> <li>✓ Egoki komunikatzeko bideak: entzuten ikasi, txanda errespetatu...</li> <li>✓ Talde lana eta jarrera parte-hartzailea</li> <li>✓ Euskaraz hitz egitearen aldeko jarrera positiboa, hizkuntzaz gozatuz</li> </ul>
<b>HARTZAILEAK</b>	<b>Lehen Hezkuntza (4. eta 5. mailak)</b>
<b>METODOLOGIA</b>	<p>Bertsolariak ordubeteko eskola emango du hamabostean behin, gela bakoitzean, eta tarteko astean ikastetxeko irakaslea arduratuko da programa hurrekin lantzeaz.</p> <p>Irakaslea bertsolariarekin batera egongo da gelan, batetik, zubi lanak egiteko, eta bestetik, proiektuaren jarraipena egiteko. Irakasle horrek prestakuntza ere jasoko du bide batez.</p> <p>Ikasturte amaieran jaialdi bat egingo da eta proiektua landu duten ikastetxeetako ikasle guzti-guztiek parte hartuko dute.</p>
<b>BALDINTZAK</b>	Aurrekontuaren %50 eskolak berak ordaintzea
<b>IRAUPENA</b>	Astean ordubete
<b>ERAKUNDEA edo ENPRESA</b>	Gipuzkoako Bertsozale Elkartea
<b>Web orria</b>	<a href="http://www.bertsozale.eus">www.bertsozale.eus</a>
<b>UDAL DEPARTAMENTU SUSTATZAILEA</b>	EUSKARA DEPARTAMENTUA
<b>Telefonia</b>	943 00 51 16
<b>Helbide elektronikoa</b>	<a href="mailto:euskaraz@zarautz.eus">euskaraz@zarautz.eus</a>
<b>Arduraduna</b>	Maite Etxaniz

## INGURUMENA

<b>PROGRAMA</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>•</li> <li>• <b>ITSASPEKO ZINEMA ZIKLOA</b></li> <li>•</li> </ul>			
<b>GAIA</b>	<b>Ingurumena. Itsasoen egoera eta zaintza</b>			
<ul style="list-style-type: none"> <li>• <b>HELBURUAK eta EDUKIA</b></li> </ul>	<p>Helburuak</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>✓ Itsasoa ezagutzea, bere balio aintzat hartzea eta hura zaintzea.</li> </ul> <p>Edukiak:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>✓ Itsasoaren edertasuna ikustea</li> <li>✓ Gure jarrerek itsasoan duten eragina azaleratzea, bereziki guk sortutako hondakinek egiten duten kaltea eta klima aldaketak itsason duen eragina.</li> </ul>			
<ul style="list-style-type: none"> <li>• <b>HARTZAILEAK</b></li> </ul>		<b>IKASLEAK</b>	<b>IRAKASLEAK</b>	<b>GURASOAK</b>
	<b>LH 5 eta 6</b>	<b>X</b>	<b>X</b>	
<b>METODOLOGIA</b>	<p>Modelo aretoan, itsaspeko zinema proiektzioak egingo dira, Nazioarteko Itsaspeko Zinema Ziklotik aukeratutako filmekin. Proiektzioa laguntzeko, itsasoko eta itsaspeko profesionalak azalpenak emango dituzte.</p> <p>Aurretik, Ikastetxeetan material didaktikoa banatuko da, gelan gaia lantzeko aukera izan dezaten.</p>			
<b>BALDINTZAK</b>	Modelo aretora irten beharra			
<b>BEHARRAK</b>				
<b>IRAUPENA DATAK</b>	<p>Ordubeteko saioak aurreikusten dira (joan etorriak kontuan izan gabe).</p> <p>Otsailaren 1ean egitea aurreikusten dugu. Dena dela, azter daitezke beste data batzuk.</p>			
<b>OHARRAK</b>				
<b>ERAKUNDEA edo ENPRESA Web orria</b>	<p>CIMASUB Donostiako Nazioarteko Itsaspeko Zinema Zikloa</p> <p><a href="http://www.ciclo.subacuaticasrealsociedad.com">www.ciclo.subacuaticasrealsociedad.com</a></p>			

<b>UDAL DEPARTAMENTU SUSTATZAILEA</b>	Ingurumena
<b>Telefonoa</b>	943 00 51 09
<b>Helbide elektronikoa</b>	brodriguez@zarautz.eus
<b>Arduraduna</b>	Gloria Vázquez (zinegotzia) Begoña Rodríguez Iraeta (teknikaria)

## INGURUMENA- AGENDA 21

<b>PROGRAMA</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>•</li> <li>• <b>IKASTETXEENTZAKO BISITA GIDATUAK KOSTALDEKO EKOSISTEMAK EZAGUTZEKO</b></li> <li>•</li> </ul>			
<b>GAIA</b>	<b>Kostaldeko ekosistemak ezagutzen</b>			
<b>• HELBURUAK eta EDUKIA</b>	<p>Helburuak</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>✓ Kostaldeko ekosistemak (dunak, hezeguneak) ezagutzea, bere balio aintzat hartzea eta hura zaintzea.</li> </ul> <p>Edukiak:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>✓ Iñurritzako Biotopo Babestua</li> <li>✓ Hezeguneetako hegaztiak: ezaugarriak eta behaketa</li> <li>✓ Dunetako landaredia. Moldaerak eta behaketa</li> <li>✓ Gure jarrerak inguruan duten eragina azalerazea.</li> </ul>			
<b>• HARTZAILEAK</b>	<b>LH -DBH</b>	<b>IKASLEAK</b>	<b>IRAKASLEAK</b>	<b>GURASOAK</b>
<b>• HARTZAILEAK</b>	<b>LH -DBH</b>	<b>X</b>	<b>X</b>	
<b>METODOLOGIA</b>	Eratzun Berde Urdinaren ibilbidearen zati batean, Zarauzko ikastetxeetako maila ezberdinetako ikasleentzat zuzendutako irteera gidatuak antolatuko dira. Irteeran Iritako hezegunea eta Iñurritzako Biotopo Babestua bisitatuko dira. Edukiak ikasleen ezagutza mailaren arabera egokituko dira. Ikasle txikienekin ibilbidean zehar jolasak egingo dira eta gazteekin hainbat dinamika proposatuko dira.			
<b>BALDINTZAK</b>	Irteera Iritako hezegunean hasiko da (suhiltzaileen biribildunean)			
<b>BEHARRAK</b>	Eguraldiaren araberrako oinetako eta arropa egokiak / eguzkitako krema			
<b>IRAUPENA DATAK</b>	2-3 orduko saioak aurreikusten dira (joan etorriak kontuan izan gabe). Ikastetxeak hala nahi izanez gero, irteeraren amaieran hondartzan gera daitezke bazkaltzen.			
<b>OHARRAK</b>	Ikasleak taldeka / gelaka banatuko dira. Talde bakoitzak hezitzaile bat izango du.			
<b>ERAKUNDEA edo ENPRESA Web orria</b>	ZARAUZKO ERAZTUN BERDE URDINA <a href="http://www.eraztunberdeurdina.eus">www.eraztunberdeurdina.eus</a>			

<b>• UDAL DEPARTAMENTU SUSTATZAILEA</b>	AGENDA 21
<b>Telefonoa</b>	943 00 51 59
<b>Helbide elektronikoa</b>	<a href="mailto:zarautz@eraztunberdeurdina.eus">zarautz@eraztunberdeurdina.eus</a>
<b>Arduraduna</b>	Gloria Vázquez (Zinegotzia) Ainara Garcia (Teknikaria)



## INGURUMENA-AGENDA 21

<b>PROGRAMA</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>•</li> <li>• <b>HONDARTZAKO ZABOR BILKETA</b></li> <li>•</li> </ul>			
<b>GAIA</b>	<b>Ingurumena. Hondartzen egoera eta zaintza</b>			
<ul style="list-style-type: none"> <li>• <b>HELBURUAK eta EDUKIA</b></li> </ul>	<p>Helburuak</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>✓ Hondartzako zaborren arazoari arreta ipintzea, ikasleak modu aktiboan aritzea eta itsasoaren zaintza bultzatzea.</li> </ul> <p>Edukiak:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>✓ Itsas ekosistemak mantentzearen garrantziaz hausnartu eta jabetzea.</li> <li>✓ Senadi eta hondartzetako itsas hondakinen bilketak aukera ezin hobe dira hondakinek eragiten duten inguruneko degradazioa antzeman eta kontzientzia hartu ahal izateko.</li> <li>✓ Jarduera honetan bi orduz hondakinak bilatuko ditugu kostaldean zehar. Lehen orduan hondakinak zakuetan gordeko ditugu, eta bigarren orduan,</li> </ul>			
<b>HARTZAILEAK</b>	<b>LH 5 eta 6</b>	<b>IKASLEAK</b>	<b>IRAKASLEAK</b>	<b>GURASOAK</b>
		X	X	
<b>METODOLOGIA</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• <b>LHko ikasleentzat: Hondakinen bilketa eta karakterizazioa</b> Itsas Hondakinen Bilketa eta karakterizazioa jardueran hondakinak biltzeaz gain, hauek ezagutu eta sailkatuko ditugu kopuru eta motaren arabera. Ondoren hondakinak erregistratuko ditugu herritar zientzia akzio baten bitartez, honela gure eginkizunak itsas hondakinen ikerketan lagunduko duelarik.</li> <li>• <b>DBHko ikasleentzat: Mikroplastikoak hondartzan</b> Hondartzako mikroplastikoen laginketa baten bidez ikusezina ikusarazteko ekimena. Metodologia honen bitartez, aurrez mugatutako gainazal batean mikroplastikoen kontzentrazioa kalkulatzeko gai izango dira ikasleak, material espezifiko eta gure itsas zientzialari taldearen etengabeko laguntzaz. Mikroplastikoak dagoeneko arazo handiak dira, baina, aldi berean, gure begien bistatik ihes egiten dute tamaina txikia dutelako.</li> </ul>			
<b>BALDINTZAK</b>	Gehienez LHko eta DBHko maila bat // Jarduera itsasbeheran egingo da			
<b>BEHARRAK</b>	Oinetako eta arropa erosoak eta eguraldiaren arabekoak			
<b>IRAUPENA DATAK</b>	2 orduko saioak izango dira (joan-etorriak kontuan izan gabe).			
<b>OHARRAK</b>	Gutxienez hauetako talde bakoitzarekin bi egun desberdin programatzea gomendatzen dugu, horrela eguraldi txarra izanez gero, jarduera egin ahal izateko beste egun posible bat izango dute. Ikasleak taldeka / gelaka banatuko dira. Talde bakoitzak hezitzaile bat izango du.			
<b>ERAKUNDEA edo ENPRESA Web orria</b>	MATER ITSAS GELA <a href="https://mater.eus/">https://mater.eus/</a>			

<b>• UDAL DEPARTAMENTU SUSTATZAILEA</b>	Ingurumena
<b>Telefonoa</b>	943 00 51 09
<b>Helbide elektronikoa</b>	n-ollokiegi@zarautz.eus
<b>Arduraduna</b>	Gloria Vázquez (Zinegotzia) Nerea Ollokiegi (Teknikaria)

## PAREKIDETASUN SAILA

• <b>PROGRAMA</b>	<b>HEZKIDETA, HEZKUNTZA AFEKTIBO-SEXUALA eta INDARKERIA MATXISTAREN PREBENTZIOA LANTZEKO PROGRAMA</b>
• <b>GAIA</b>	<b>Hezkuntza afektibo-sexuala, hezkidetzeta, parekidetasuna eta indarkeria matxistaren prebentzioa landuko duen programa</b>

### HELBURUAK, EDUKIAK, HARTZAILEAK ETA METODOLOGIA

Programak formakuntza, orientazioa eta aholkularitza eskainiko dizkie Zarauzko ikastetxeetako ikasleei, irakasleei eta gurasoei, beti ere ikastetxe eta ziklo bakoitzeko errealitatea kontuan hartuta.

**IKASLEENTZAKO SAIOAK:** edukiak eta saio-kopurua

- **LEHEN HEZKUNTZA – 1. MAILA:**

***Jolasak berdintasunez. Jostailu ez sexista eta kooperatiboak. Lanbideak. Ipuin ez sexistak.***

Gaiak 2 ordutako 3 saioetan landuko dira, hezitzaile batekin.

- **LEHEN HEZKUNTZA – 2. MAILA:**

***Aniztasuna, dibertsitatea, berdintasuna, elkarbizitza.***

Gaiak 2 ordutako 3 saioetan landuko dira, hezitzaile batekin.

- **LEHEN HEZKUNTZA – 3. ETA 4.. MAILAK:**

***Gorputza, autoezagutza, sentimenduak, emozioak, harremanak.***

Gaiak 2 ordutako 3 saioetan landuko dira, hezitzaile batekin. Landutako gaiak jarraipena izango dute maila batetik bestera. Gai hauek bi ikasturtean zehar lantzeak aukera emango du jarraipena emateko eta gehiago garatzeko eta sakontzeko.

- **LEHEN HEZKUNTZA – 5. MAILA:**

***Berdintasunezko harremanak. Familia eredu aniztasunak. Etxeko eta zainketa lanen banaketa.***

Gaiak 2 ordutako 3 saioetan landuko dira, hezitzaile batekin.

- **LEHEN HEZKUNTZA – 6. MAILA:**

***Hezkuntza afektibo-sexuala eta sexu-aniztasuna. Pubertaroa.***

Gaiak 2 ordutako 3 saioetan landuko dira, hezitzaile batekin.

- **DBH – 1. MAILA:**

***Sare sozialak. Tratu onak eta norbere buruaren babesa***

Gaiak 2 ordutako 3 saioetan landuko dira, hezitzaile batekin.

- **DBH – 2. MAILA:**

***Hezkuntza afektibo-sexuala eta sexu-aniztasuna***

Gaiak 2 ordutako 3 saioetan landuko dira, hezitzaile batekin.

- **DBH – 3. MAILA:**

***Maskulinitatea – feminitatea. Sexualitatea. Indarkeria sareetan***

Gaiak 2 ordutako 3 saioetan landuko dira. Hasierako 2 saioak neskek eta mutilek aparte egingo dute. Hirugarren saioa elkarrekin.

Mutilekin maskulinitatea eta indarkeria lantzeko hezitzailea gizona izango da.

Neskekin feminitatea eta indarkeria lantzeko hezitzailea emakumezkoa izango da.

Hirugarren saioa bi hezitzaileekin egingo dute.

- **DBH – 4. MAILA:**

***Autodefentsa feminista eta maskulinitate eredu berriak. Maitasun erromantikoaren mitoa.***

Gaiak 2 ordutako 3 saioetan landuko dira. Hasierako 2 saioak neskek eta mutilek aparte egingo dute, eta hirugarren saioa elkarrekin.

Mutilekin maskulinitate-eredu berriak eta indarkeriaren prebentzioa lantzeko hezitzailea gizonetzkoa izango da.

Neskekin autodefentsa feminista lantzeko hezitzailea emakumezkoa izango da.

Hirugarren saioa bi hezitzaileekin egingo dute.

- **ERDI MAILAKO ZIKLOAK ETA BATXILERGOA:**

***Hezkuntza afektibo-sexuala. Autodefentsa feminista eta maskulinitate-eredu berriak.***

Bi aukera eskainiko dira:

1. Gaiak 2 ordutako 4 saiotan lantzea:

- Hasierako lau gaiak 2 ordutako 2 saiotan talde osoarekin.

- Autodefentsa feminista, maskulinitate eredu berriak eta indarkeria matxistaren prebentzioa lantzea 2 ordutako bi saiotan. Saio hauetan taldea sexuaren arabera bereiziko da. Autodefentsa lantzeko taldea emakume batek dinamizatuko du eta maskulinitatea eta indarkeriaren prebentzioarena gizonetzko batek.

2. Gaiak bi ikasturtean zehar lantzea:

- Lehen mailan hasierako lau gaiak lantzea 2 ordutako 3 saiotan.

- Bigarren mailan autodefentsa feminista, maskulinitate eredu berriak eta indarkeria matxistaren prebentzioa lantzea, 2 ordutako bi saiotan. Saio hauetan taldea sexuaren arabera bereiziko da. Autodefentsa lantzeko taldea emakume batek dinamizatuko du eta maskulinitatea eta indarkeriaren prebentzioarena gizonetzko batek.

- **GOI MAILAKO ZIKLOAK ETA LANBIDE HASTAPENA:**

***Tratu oneko harremanak, botere harremanak eta indarkeria matxista. Autodefentsa feminista eta maskulinitate-eredu berriak.***

Bi aukera ezberdin eskainiko dira:

1. Gaiak 2 ordutako 4 saiotan lantzea:

- Hasierako lau gaiak 2 ordutako 2 saiotan talde osoarekin.

- Autodefentsa feminista, maskulinitate eredu berriak eta indarkeria matxistaren prebentzioa lantzea 2 ordutako bi saiotan. Saio hauetan taldea sexuaren arabera bereiziko da. Autodefentsa lantzeko taldea emakume batek dinamizatuko du eta maskulinitatea eta indarkeriaren prebentzioarena gizonetzko batek.

2. Gaiak bi ikasturtean zehar lantzea:

- Lehen mailan hasierako lau gaiak lantzea 2 ordutako 3 saiotan.

- Bigarren mailan autodefentsa feminista, maskulinitate eredu berriak eta indarkeria matxistaren prebentzioa lantzea, 2 ordutako bi saiotan. Saio hauetan taldea sexuaren arabera bereiziko da. Autodefentsa lantzeko taldea emakume batek dinamizatuko du eta maskulinitatea eta indarkeriaren prebentzioarena gizonetzko batek.

**IRAKASLEENTZAKO FORMAKUNTZA ETA AHOLKULARITZA SAIOAK:**

Ikastetxeko irakasleek proposatuko dituzte formakuntza-saioetan landu nahi dituzten gaiak, betiere programa honetan landuko diren gaiekin zerikusia badute.

Formakuntza-saioak ziklo bakoitzeko irakasle guztiekin batera egingo dira. Ziklo bakoitzeko gehienezko orduak: 6 ordu.

**GURASOENTZAKO SAIOAK:**

- Saio bat, non seme-alabek ikasgelan landu dituzten edukiei buruzko informazioa eta aholkularitza emango zaien. (2 ordu)
- Beste bi saio: hezkuntza afektibo-sexualari eta indarkeriaren prebentzioari buruzko formakuntza saioak. (2 orduko 2 saio – guztira 4 ordu)

Programaren, edukiak, gaiak eta saioak aldatu ahal izango dira ikastetxeetako beharretara egokitzeko. Horretarako eskaera egin beharko dute Parekidetasun Departamentuan eta departamentuak onartu ahal izango ditu edo ez, programa gauzatuko duen enpresaren balorazio teknikoa kontsultatu ondoren.

BIDERATZAILEA	LEHIAKETA EGINGO DA ETA ESLEITUKO DA
---------------	--------------------------------------

<b>• UDAL DEPARTAMENTUA</b>	Parekidetasun Departamentua
<b>Telefonoa</b>	943 00 51 17
<b>Helbide elektronikoa</b>	berdintasuna@zarautz.eus
<b>Arduradunak</b>	Edurne Urbieta Zúñiga

## EMAKUMEAK MARTXAN

PROGRAMA	EMAKUME MIGRATZAILEAK, ESKUBIDEAK DITUZTEN EMAKUMEAK			
GAIA	Emakume migratuen eta errefuxiatuen eskubideak			
<b>HELBURUAK eta EDUKIA</b>	<p>2022ko irailaren 25etik irailaren 3ra ALBOAN GKEak karpa bat jarriko du herrian eta hainbat jarduera egin, EMAKUMEAK MARTXAN proiektuan. Testuinguru horretan, ekintza batzuk antolatu ditu ikastetxeentzat.</p> <p>Emakumeak Martxan programak mugikortasun- eta migrazio-testuinguruetan indarkeria jasan duten emakumeen beharrei erantzuteko proiektuak garatzen ditu. Proiektu horiek guztiek ideia hau dute abiapuntu: migrazio-prozesuak, pertsona gehienentzat, zaugarritasun-ibilbidea dira, eta prozesu horiek feminizatzen ari dira azken urteotan. Beraz, Martxan dauden Emakumez ari garenean, migratzaile eta emakume izateagatik aurrez aurre duten diskriminazio bikoitzaz ari gara.</p> <p>Hau guztia esanda, ekitaldi honen helburu nagusia Zarauzko ikastetxeetan eta jendarte orokorrean emakume migratu eta errefuxiatuen egoeraz aritzea eta hausnartzea da. Horretarako, migratzen duten emakumeen bidai osoa, hau da, mugitzeko kausak, ibilbideko gorabeherak eta helmugako erronkak, landuko ditugu gizartea kontzientziatzeko eta sentsibilizatzeko asmoz.</p>			
<b>HARTZAILEAK</b>		<b>IKASLEAK</b>	<b>IRAKASLEAK</b>	<b>GURASOAK</b>
	<b>LH5, LH6 DBH1, DBH2, DBH3, DBH4,</b>	<b>X</b>		
<b>METODOLOGIA</b>	<p>Ekintza hauetako bakoitza 20-25 laguneko taldeetan egingo da, bakoitzak 4-5 kide inguruko lau taldeetan banatuta.</p> <p>1-Lehenengo jarduerak "Mugarik gabeko mundu bat" izena du. Antzararen joko tradizionalaren egokitzapena da, migrazio, aterpe eta harrera errealitatean zentratua. Erronka, galderen eta proben bidez kutxen bidezko mugimendua gainditzea da. <b>LH 5, LH 6.</b></p> <p>2-Bigarren jarduera "Scape room" metodologia jarraitzen duen talde-jokoa da. Proposamena geure planetako hainbat lekutako lau emakumeren bizitza istorioen banaketarekin hasten da, arrazoi ezberdinengatik migrazio bidaia bati ekin behar izan diotenak. Jolasa proba batzuk gainditzean datza, eskuartean dugun gaiari buruz hausnartuz. Jarduera honetan parte hartu ahal izateko ezinbestekoa da datu mugikorretarako konexioa duten telefono mugikorrek edukitzea (bi talde txiki bakoitzeko). <b>DBH 1, DBH 2, DBH 3 eta DBH 4</b></p>			
<b>BALDINTZAK</b>	<p>Parte hartzeko, baldintza hauek betetzea beharrezkoa izango da: datu mugikorretarako konexioa duten telefono mugikorrek edukitzea (bi talde txiki bakoitzeko), heldu batek lagunduta joan, eta segurtasun neurri higieniko-sanitarioak betetzea</p>			
<b>BEHARRAK</b>	<p>DBHko ikasleak mugikorra ekarri behar dute hezkuntza proposamenean parte hartu ahal izateko</p>			
<b>IRAUPENA</b>	<p>Aste bat</p>			
<b>OHARRAK</b>	<p><b>Jarduera hau soilik iraileko azken astean egin ahal izango da.</b></p>			
<b>ERAKUNDEA edo ENPRESA</b>	<p>ONG Alboan.                      Prensari erreferentziak: <a href="https://www.alboan.org/eu/berriak/tokikoa/emakumeak-martxan-emakume-migratzaileak-eskubideak-dituzten-emakumeak">https://www.alboan.org/eu/berriak/tokikoa/emakumeak-martxan-emakume-migratzaileak-eskubideak-dituzten-emakumeak</a></p>			

	<a href="https://www.donostitik.com/el-evento-solidario-mujeres-en-marcha-llega-a-donostia-con-la-ong-alboan/">https://www.donostitik.com/el-evento-solidario-mujeres-en-marcha-llega-a-donostia-con-la-ong-alboan/</a>
--	---

<b>UDAL DEPARTAMENTU SUSTATZAILEA</b>	Gizarte Zerbitzuak.
<b>Telefonoa</b>	943005127
<b>Helbide elektronikoa</b>	jaranguren@zarautz.eus
<b>Arduraduna</b>	Julen Aranguren

## BEGIRALDATU, Boluntariotza bultzatzeko programa

<b>PROGRAMA</b>	<b>BEGIRALDATU, Boluntariotza bultzatzeko programa</b>			
<b>GAIA</b>	<b>Gizarte parte-hartzea, elkartegintza eta boluntariotza</b>			
<b>HELBURUAK eta EDUKIA</b>	<p>Programaren helburuak bi dira nagusiki:</p> <ol style="list-style-type: none"> <li>1. Gazteei partehartzea eta boluntariotzaren berri eman, eta bere ingurune hurbilean aktiboki partehartzearen garrantzia azpimarratu.</li> <li>2. Hiritar bezala gizartean dituzten arduretaz hausnartu. Gazteei beren aisialdia, gizarte bidezkoagoa eraikitzeke espazio bezala aurkeztu.</li> </ol> <p>“Begiraldatu” programaren bidez 15 urtetik gorako gazteei, boluntariotza eta parte hartzea hurbildu eta ezagutarazi nahi zaizkie.</p> <p>Programaren asmoa beraien ingurune hurbileko errealitateetara begiak ireki eta beraien eskubide eta ardurak dituzten hiritarrak direla konturaztea da batetik, eta errealitateaz jabetu ondoren gizartean esku hartzeko eta eraldatzeko duten botere eta ahalmenez konturaztea bestetik.</p> <p>Programa honen bitartez gainera, parte hartze hori errealitatean nola txertatzen den ikusi ahal izango da, entitate ezberdinek boluntarioekin dituzten programak ezagutzuz, egunen batetan pausoa ematera animatuko balira, nora jo edo nondik hasi jakin dezaten.</p>			
<b>HARTZAILEAK</b>		<b>IKASLEAK</b>	<b>IRAKASLEAK</b>	<b>GURASOAK</b>
	batxilergoa, erdi mailako heziketa zikloak..	X		
<b>METODOLOGIA</b>	<p><b>Ikastetxeen beharren eta eskakizunen arabera moldaketak egin badaitezke ere,</b> proiektua 3 fasetan burutzen da, eta GIZALDEko dinamizatzaile batek egingo ditu.</p> <p>Fase bakoitzaren iraupena ordubete ingurukoa (klase bat)</p> <ol style="list-style-type: none"> <li>1. Hausnarketa fasea. Fase honen helburua gazteek beraien ingurune hurbileko errealitateari begiak irekitzea da. Dinamika baten bidez, bertan aurki ditzaketen arazo edo eraldatu/hobetu daitezken egoerak identifikatzea da.</li> <li>2. Fase kritikoa. Lehen fasean landutakotik abiatuz, hiritar bezala beraien ingurune hurbilean intzidentzia izateko duten arduraz eta gizartean esku hartzeko eta eraldatzeko duten botere eta ahalmenez konturaztea izango du helburu.</li> <li>3. Fase parte hartzailea. Fase honek parte hartze hori errealitatean nola txertatzen den ikustea du helburu, entitate ezberdinek boluntarioekin dituzten programak ezagutzuz.</li> </ol>			
<b>BEHARRAK</b>	Ordenagailua eta proiektorea			
<b>IRAUPENA</b>	Ikastetxearen nahiaren arabera			
<b>ERAKUNDEA edo ENPRESA</b>	Gizalde			



<b>UDAL DEPARTAMENTU SUSTATZAILEA</b>	Gizarte Zerbitzuak
<b>Telefonoa</b>	943 00 51 27
<b>Helbide elektronikoa</b>	jaranguren@zarautz.eus
<b>Arduraduna</b>	Immigrazio eta kultur aniztasunaren teknikaria

## AITA MARI Erreskate ontzia, immigrazioari elkartasunezko begirada

<b>PROGRAMA</b>	<b>MIGRAZIO PROZESUAK "FORMATZAILEEN FORMAZIOA"</b>			
<b>GAIA</b>	<b>Migrazio prozesuak ulertu eta elkartasuna sustatzeko "formatzaileen formazioa"</b>			
<b>HELBURUAK eta EDUKIA</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Irakasleak migrazio gaiaren inguruan sentsibilizatzea, proiektuaren hartzaileei lortutako ezagutzak eta sentsibilitatea helarazteko.</li> <li>• Pertsona migratzaile, errefuxiatu eta desplazatuaren inguruko ikuspegi argia eta ikuspuntu partekatua ezartzea.</li> <li>• Egingo diren jardueren eta tailerren berri ematea eta egin daitezkeen ekintzen proposamenak entzutea.</li> <li>• Ondorengo gaiaren inguruko formazioa:             <ol style="list-style-type: none"> <li>1. Giza eskubideei eta nazioarteko lankidetzari buruzko berariazko prestakuntza.</li> <li>2. Migratzaileen, errefuxiatuen eta Lekualdatuen arazoei buruzko berariazko prestakuntza.</li> <li>3. Genero berdintasuna eta gutxiengo eta talde ahulenei laguntza emateko prestakuntza.</li> <li>4. Itsas bilaketa eta salbamenduko erantzukizun-eremuaren (SAR eremua) inguruko prestakuntza.</li> </ol> </li> </ul>			
<b>HARTZAILEAK</b>		<b>IKASLEAK</b>	<b>IRAKASLEAK</b>	<b>GURASOAK</b>
	<b>DBH 3 eta DBH 4</b>		<b>X</b>	
<b>METODOLOGIA</b>	Prestakuntza bilera presentzialen edo telematikoen bidez egingen da, proiektuaren koordinatzaileen eta parte hartu nahi duten pertsonen artean. Tailerretan formazio teorikoaz gain, dinamika partehartzaileak egingo dira. Taldearen aniztasunak, irakasle, gazte begirale eta Quios-en edo itsasontzian egon diren SMHko boluntarioen presentziak esperientzia aberasgarria bihurtzen du.			
<b>BEHARRAK</b>	Ordenagailu eramangarri bana irakasleko			
<b>DATAK</b>	Eskoletako saioak hasi aurretik egin beharko lirake. Bi aste lehenago proposatzen da.			
<b>IRAUPENA</b>	Bi saio bi ordukoak. Guztira 4 ordu			
<b>HORNITZAILEAK</b>	Zarauzko udala- SMH.			

<b>UDAL DEPARTAMENTU SUSTATZAILEA</b>	Gizarte Zerbitzuak
<b>Telefonia</b>	943 00 51 27
<b>Helbide elektronikoa</b>	jaranguren@zarautz.eus
<b>Arduraduna</b>	Immigrazio eta kultur aniztasunaren teknikaria

## AITA MARI Erreskate ontzia, immigrazioari elkartasunezko begirada

<b>PROGRAMA</b>	<b>MIGRAZIO PROZESUAK</b>			
<b>GAIA</b>	<b>Migrazio prozesuak ulertu eta elkartasuna sustatzea</b>			
<b>HELBURUAK eta EDUKIA</b>	<p>Programaren helburu nagusia Zarautzeko gazteak sentsibilizatzea da nazioarteko migrazioei buruz. Adibide gisa Maditerraneo erdialdeko migrazio-ibilbidea arriskutua erabiliko dugu.</p> <p>Helburu zehatzak:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Migrazio-prozesuak ezagutaraztea: zergatiak, arrazoiak, ibilbideko arazoak, eta iritsieran aurkitzen dutena.</li> <li>• Migratzaileekiko enpatia eta loturak sortzea: bestetasuna haustea.</li> <li>• Errefuxiatuei eta migratzaileei buruzko aurreiritziak eta estereotipoak ezabatzea.</li> <li>• Migratzaileak harrera-gizartean integratzen laguntzea eta gizartearen parte-hartzea, elkartasuna eta elkarrekiko laguntza sustatzea.</li> <li>• Giza balioez eta berezko eskubideez sentsibilizatzea, hala nola bizitzeko eskubideaz, eta baita segurtasunez migratzeko eskubideaz ere.</li> </ul>			
<b>HARTZAILEAK</b>		<b>IKASLEAK</b>	<b>IRAKASLEAK</b>	<b>GURASOAK</b>
		X DBH 3, DBH 4		
<b>METODOLOGIA</b>	<p>Hiru dinakima egingo dira:</p> <p>1- <b>“ikusezinen txokoa”</b> dinamika anitzak ikasgelan migrazio prozesuak ulertu, migratzaileekin enpatizatu eta harrera herri egokiagoa bihurtzeko. <b>Ikasleen irudi eta erreflexioekin “ikusezinen txokoa” murala osatzen da.</b></p> <p><b>Maleten tailerra:</b> dinamika ikasgelan: zer 5 gauza sartuko zenituzke maletan zure herria utzi beharko bazenu? Zer utziko zenuke kanpoan?</p> <p><b>Nola artatua izan nahiko zenuke zuk?</b> tailerra. Harrera-herrian aurkitzen dutenari buruzko hausnarketa. Hau guztia kartulinetan jasoko da eta ikastetxean muralean ikusgai jarri.</p> <p>2- <b>Dokumentala</b> ikusi, Modelo aretoan, eta ondoren lanketa. “Aita Mari” edo “24 millas” , dokumentala aitzakia hartuta, gelan helburuen atalean aipatutako gaiak landuko ditugu SMHko boluntarioekin.</p> <p>3- <b>Erakusketa:</b> AUKERAN, programak irauten duen bitartean ikastetxean SMHk AITA MARI untziaekin eta Quioseko errefuxiatu eremuan egiten duen lanari buruzko erakusketa jartzea.</p>			
<b>BALDINTZAK</b>	Dokumentala: Ikasgelak Modelo aretora joatea.			
<b>BEHARRAK</b>	“ikusezinen txokoa”: kartulinar, guraizeak eta errotulagailuak.			
<b>IRAUPENA</b>	2022ko udazkenean izango da. Maleten tailerra: 2 ordu gelako. Dokumentala: proiektioa: 2 ordu + gelan lanketa beste ordu bete.			

<b>OHARRAK</b>	Honakoa programaren lehendabiziko urte da. Asmoa, datorren urtean programa aurreiritzi eta estereotipoei aurre egiteko zurrumurruek aukako tailerrarekin osatzea da.
<b>ERAKUNDEA edo ENPRESA</b>	SALVAMENTO MARÍTIMO HUMANITARIO

<b>UDAL DEPARTAMENTU SUSTATZAILEA</b>	Gizarte Zerbitzuak
<b>Telefonoa</b>	943 00 51 27
<b>Helbide elektronikoa</b>	jaranguren@zarautz.eus
<b>Arduraduna</b>	Immigrazio eta kultur aniztasunaren teknikaria

## HEZKUNTZA

<b>PROGRAMA</b>	<b>LEHEN SOROSPENAK</b>			
<b>GAIA</b>	<b>Lehen Sorospenak</b>			
<b>HELBURUAK eta EDUKIA</b>	Edozein larrialdiaren aurrean ondo aritzeko gomendioak			
<b>HARTZAILEAK</b>		<b>IKASLEAK</b>	<b>IRAKASLEAK</b>	<b>GURASOAK</b>
	<b>LH eta DBH</b>	<b>X</b>		
<b>METODOLOGIA</b>	Klase teoriko eta praktikoak.			
<b>IRAUPENA</b>	Aukeran			
<b>HORNITZAILEA</b>	DYA eta GURUTZE GORRIA			

<b>UDAL DEPARTAMENTUA</b>	HEZKUNTZA
<b>Telefonoa</b>	943 00 51 00
<b>Helbide elektronikoa</b>	hezkuntza@zarautz.eus
<b>Arduraduna</b>	Arantxa Aldalur

## BIZIKIDETZA ETA BAKE-HEZKUNTZA

<b>PROGRAMA</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>•</li> <li>• <b>IKASTETXEETAKO BIZIKIDETZA BEHATOKIA</b></li> <li>•</li> </ul>			
<b>GAIA</b>	<b>Ikastetxeetako Behatokia</b>			
<ul style="list-style-type: none"> <li>• <b>HELBURUAK eta EDUKIA</b></li> </ul>	<p>Helburuak</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>✓ Ikastetxeetako Bizikidetza Batzordea eta Behatokia dinamizatzeko aholkularitza.</li> <li>✓ Dagoeneko Bizikidetza Behatokia martxan duten ikastetxeei, organo hau bideratzeko orduan Zuzendaritzak dituen zalantzak argitu.</li> <li>✓ Bizikidetzaren egoeraren azterketan agertutako zailtasunei erantzun zehatza eman ekimenen bidez.</li> </ul> <p>Edukiak:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>✓ Behatokiaren plangintza.</li> <li>✓ Behatokiaren funtzioak.</li> <li>✓ Esperientzia ezberdinak.</li> <li>✓ Sortzen diren beharrentzat proposamenak.</li> </ul>			
<ul style="list-style-type: none"> <li>• <b>HARTZAILEAK</b></li> </ul>		<b>IKASLEAK</b>	<b>IRAKASLEAK</b>	<b>GURASOAK</b>
	<b>Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza</b>	<b>X</b>	<b>X</b>	
<b>METODOLOGIA</b>	<p>Urtean zehar behar diren bilerak burutuko dira: ikastetxearen Bizikidetza planeko urteko plangintza adostu, berau garatzeko pausuak bideratu, beharrak azaleratu eta ondoren ekimenak proposatzeari ekingo zaio.</p> <p>Ikastetxe bakoitzak bere Behatokia bideratzeko era duenez, bakoitzaren beharrei egokituko gataizkio. Batzuetan Behatokian parte hartuz, bestetan orientatzaileekin elkartu eta kanpo aholkularitza eskainiz. Bai batzuetan bai besteetan ere, eskatutako bestelako baliabideak urreratuko zaizkio ikastetxeari Behatokia eta Bizikidetza Plana gauzatzen laguntzeko.</p>			
<b>BALDINTZAK</b>				
<b>BEHARRAK</b>				
<b>IRAUPENA</b>	Ikasturtea			
<b>OHARRAK</b>	Covid 19a dela eta ikastetxeen beharretara egokituko gara (presentzialki edo modu digitalean)			
<b>ERAKUNDEA edo ENPRESA</b> Web orria	Bakeola. Gatazketarako Bitartekaritza zentroa. <a href="http://www.bakeola.org">www.bakeola.org</a>			

<ul style="list-style-type: none"> <li>• <b>UDAL DEPARTAMENTU SUSTATZAILEA</b></li> </ul>	Hezkuntza Saila
<b>Telefonoa</b>	943 00 51 00
<b>Helbide elektronikoa</b>	hezkuntza@zarautz.org
<b>Arduraduna</b>	Arantxa Aldalur Agerrista

## BIZIKIDETZA ETA BAKE-HEZKUNTZA

<b>PROGRAMA</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• <b>“IKASLE LAGUNTZAILE”</b></li> <li>• <b>BERDINEN ARTEKO BITARTEKARITZARAKO EGITASMOA (LH5tik-DBH4ra eta batxilergoan)</b></li> <li>•</li> </ul>			
<b>GAIA</b>	<b>Ikasle Laguntzaile</b>			
<b>HELBURUAK eta EDUKIA</b>	<p>Helburuak</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>✓ Ikasle laguntzaile prozesuaren faseak ikastetxeren arabera planifikatu.</li> <li>✓ Ikasle laguntzaileen egitekoa ikastetxean ezagutarazi</li> <li>✓ Bizikidetza Batzordeetan Ikasle Laguntzaileen presentzia sustatu.</li> <li>✓ Egitasmoa txertatzeko beharrezkoak diren formakuntza eta aholkularitza bermatu (Adostokiak bultzatu).</li> <li>✓ LHko azken 2 mailetan programa txertatzen jarraitu.</li> <li>✓ Programa on line erudian ere gauzatzea bermatu</li> </ul> <p>Edukiak:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>✓ Ikasle laguntzaile programa.</li> <li>✓ Ikasle laguntzaileen funtzioak.</li> <li>✓ Irakasleen funtzioak</li> </ul>			
<b>HARTZAILEAK</b>	<b>Lehen eta derrigorrezko bigarren Hezkuntza</b>	<b>IKASLEAK</b>	<b>IRAKASLEAK</b>	<b>GURASOAK</b>
<b>METODOLOGIA</b>	<p>Ikasle laguntzaile egitasmoa ikastetxez ikastetxe darraien garapenarekin jarraitu. Orientatzaile ezberdinekin urteko plangintza garatuko da eta urtean zehar diseinatutakoa burutuko litzateke.</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>.- Ohiko hilabetetako jarraipen saioak</li> <li>.- Formaziorako 6-8 orduko formazioa</li> <li>.- Beharrezko materiala erraztu saioak garatzeko</li> <li>.- Ikasle Laguntzaileen Topaketa</li> <li>.- Orientatzaile edo programako arduradunarekin zuzeneko prestaketa bilerak eta baliabideen egokitzapena</li> </ul> <p>Ikastetxe bakoitzean programa inplementatzen jarraituko da, beti ere bakoitzaren ezaugarrietatik abiatuz.</p>			
<b>IRAUPENA</b>	Ikasturtea			
<b>OHARRAK</b>	Covid 19a dela eta ikastetxeen beharretara egokituko gara (presentzialki, modu digitalean, klaseka saioak burutuz, e.a.)			
<b>ERAKUNDEA edo ENPRESA</b> Web orria	Bakeola. Gatazketarako Bitartekaritza zentroa. <a href="http://www.bakeola.org">www.bakeola.org</a>			

<b>UDAL DEPARTAMENTU SUSTATZAILEA</b>	Hezkuntza Saila
<b>Telefonoa</b>	943 00 51 00
<b>Helbide elektronikoa</b>	hezkuntza@zarautz.org
<b>Arduraduna</b>	Arantxa Aldalur Agerrista

<b>PROGRAMA</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• <b>PARTAIDETZA-EKINTZAILTZAZA</b></li> </ul>			
<b>GAIA</b>	<b>Partaidetza</b>			
<ul style="list-style-type: none"> <li>• <b>HELBURUAK eta EDUKIA</b></li> </ul>	<p>Helburuak</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>✓ Partaidetzaren oinarrietan sakondu: jakin, ahal eta nahi.</li> <li>✓ Esperientzia bat sustatu ikastetxean, herriari begira.</li> <li>✓ Egindako prozesua eta produktua komunitate helduari aurkeztea (OGG, Behatokia, udalean, ZHH...)</li> <li>✓ Administrazioaren markoa aplikatuz ekimena burutu.</li> </ul> <p>Edukiak:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>✓ Partaidetzaren inguruko kontzeptu oinarrizkoak</li> <li>✓ Partaidetzako prozesuaren faseak</li> <li>✓ Emozioak partaidetzan</li> <li>✓ Erabaki hartzeko gaitasuna</li> <li>✓ Komunitate helduari aurkezteko euskarria</li> </ul>			
		<b>IKASLEAK</b>	<b>IRAKASLEAK</b>	<b>GURASOAK</b>
<ul style="list-style-type: none"> <li>• <b>HARTZAILEAK</b></li> </ul>	<b>Lehen Hezkuntza</b>	<b>X</b>		
<b>METODOLOGIA</b>	<p>Urtean zehar lauzpabost bilera burutuko dira ikasleekin: partaidetzaren inguruko oinarriak landu, euren beharrak identifikatu, partaidetzak dituen aukera eta mugak ezagutu eta nahiko luketen esku-hartze txiki bat diseinatu, gero komunitate helduari helarazteko.</p> <p>Proiektu honetan garrantzitsutzat jotzen da emaitza ikastetxeko partaidetzatik at iristea prozesuaren emaitza, prozesu parte hartzaile erreal baten isla izan dadin. Ahal den neurrian batzar sistema sustatuko da.</p>			
<b>BALDINTZAK</b>				
<b>BEHARRAK</b>				
<b>IRAUPENA</b>	Ikasturtea			
<b>OHARRAK</b>	Aukera egongo balitz maila edo ziklokako nahasketa sustatuko litzateke.			
<b>ERAKUNDEA edo ENPRESA</b> Web orria	Bakeola. Gatazketarako Bitartekaritza zentroa. <a href="http://www.bakeola.org">www.bakeola.org</a>			
<ul style="list-style-type: none"> <li>• <b>UDAL DEPARTAMENTU SUSTATZAILEA</b></li> </ul>	Hezkuntza Saila			
<b>Telefonoa</b>	943 00 51 00			
<b>Helbide elektronikoa</b>	hezkontza@zarautz.org			
<b>Arduraduna</b>	Arantxa Aldalur Agerrista			



## BIDE-HEZKUNTZA

<b>PROGRAMA</b>	<b>BIDE-HEZKUNTZA</b>			
<b>GAIA</b>	<b>Bide-hezkuntza</b>			
<b>HELBURUAK eta EDUKIA</b>	Ikasle orok mugikortasun segururako gaitasunak lantzea, bere autonomia eta arduratik, prebentzioa oinarri hartuz. Mugikortasuneko arriskuak, ezagutu, hauteman eta kudeatu ditzan, bere burua babestuz eta pertsonetikiko izan ditzaken erantzukizunak ezagutuz eta egoki kudeatuz			
<b>HARTZAILEAK</b>		<b>IKASLEAK</b>	<b>IRAKASLEAK</b>	<b>GURASOAK</b>
	LH 1. zikloa (LH 1-2)	X		
	LH 2. zikloa (LH 3-4)	X		
	LH 3. zikloa (LH 5-6)	X		
	DBH	X		
	BATXILERGOA	X		
	FORMAKUNTZA ZIKLOAK	X		
<b>HELDUENTZAKO IKASKETAK</b>	X			
<b>METODOLOGIA</b>	<p>Adin talde bakoitzeko baldintzetara egokituz, betiere, mugikortasun segururako gaitasunerako gidako ildoak jarraituz.</p> <p><a href="http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.eus/contenidos/informacion/dig_publicacion_es_innovacion/eu_otrosamb/adjuntos/otras_publicaciones/990005e_Pub_Trafico_movilidad_competencias_e.pdf">http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.eus/contenidos/informacion/dig_publicacion_es_innovacion/eu_otrosamb/adjuntos/otras_publicaciones/990005e_Pub_Trafico_movilidad_competencias_e.pdf</a></p> <p>Talde bakoitzean, norbere gaitasunen ohartzetik hasi eta partehartzeko dinamiken bidez (jolas, dilema, eztabaida, roll playing...) gaitasun berriak eskura jarri. Ondoren mugikortasuneko ingurunean aplikatuz.</p>			
<b>BALDINTZAK</b>	Zarauzko ikastetxeetakoren batean ikasten egotea			
<b>IRAUPENA</b>	LH1, LH2, LH3 eta LH4: ordu bat teorikoa eta ordu bat praktikoa LH5 eta LH6: 2 ordu teorikoa. ordu bat praktikoa DHB1, DHB2, DHB3, DHB4 eta batxilergoa: ordu bat gutxiengoa + ordu bat (komenigarria) Oteiza eta Monte Albertia: ordu bat (gutxiengoa)+ ordu bat (komenigarria).			
<b>OHARRAK</b>				
<b>ERAKUNDEA edo ENPRESA</b> Web orria	Zarauzko Udala. Udaltzaingoa.			

<b>UDAL DEPARTAMENTU SUSTATZAILEA</b>	Udaltzaingoa
<b>Telefonoa</b>	943 00 51 15    luzapena 3213
<b>Helbide elektronikoa</b>	u-egana@zarautz.eus
<b>Arduraduna</b>	Xabier Ansa

## OSASUN HEZIKETA eta DROGA-PREBENTZIOA

<b>PROGRAMA</b>	<b>ADIKZIOEN PREBENTZIO PROGRAMA IKASTETXEETAN</b>			
<b>GAIA</b>	<b>Adikzioen prebentzioa</b>			
